


0



LAUDIO

Laudion 21 agenda lokalaren prozesua

XXII



21 agenda lokala  
Garapen Jasangarriaren Programa Laudion

Ingurugiroaren arazoei buruzko kezka eta ardura sortu zen, funtsean, XX. mendearen erdi aldetik aurrera herrialde kapitalistek izan zuten ekonomi hazkunde garaia ondoren eta, hain zuzen ere, garai horretan sortu ziren lehen ahotsak erreferentzia egiten zutenak naturako baliabideak agortzeko aukera zegoela eta Ingurugiroa hondatzen ari zela. Batez ere arlo akademiko eta sozialetan hasi zen kuestionatzen ordura arte herrialde garatuetan mantentzen zen garapen eredua eta, hain zuzen, herrialde azpigaratuek imitatu beharreko eredua zena.

Herrialde industrializatu hauetan lekuan lekuko ingurugiro arazoak generalizatzea, hala nola atmosferaren kutsadura, uraren kutsadura, landa eta hiri munduaren txarrerako bidea, lurzorua higidura eta kutsadura, e.a., izaera globala zuten beste arazo batzuekin batera, negutegi efektua, ozono geruza gero eta txikiagoa bilakatzea, baso galtzea, bioaniztasunaren galera, herrialde azpigaratuetan gertatzen ari zen biztanlegoaren hazkundearen arazoarekin

batera sortzen dute eta agertarazi zuten mundu osoan ekimen sail bat gai honetaz, ikerketa zientifikoa zein politika eta gizarte ekimenetan.

Ekimen horietako bat da 21 Agenda: Ingurugiroa eta Garapenerako Aliantza Globala. 21 Agenda da Rio de Janeiron 1992 urtean Ingurugiroa eta Garapenari buruzko Nazio Batuen Gailurrean (Rio Gailurra) parte hartu zuten 175 herrialde parte hartzailek sinatutako dokumentuen arteko garrantzitsuenetakoa.

21 Agenda da ekintza plan bat bertaratzeko garapen jasangarriko irizpideak, gobernuak, enpresek, erakundeek eta beste gizarte talde batzuek euren jarduerak ingurugiroan eraginak dituztenak, aplikatzekoak.

1994an, 21 Agendako pautak jarraituz toki erakundeetarako, Aalborg-eko Karta sinatu zen, eta horrek markatu zuen Europar euren lurraldetako jasangarritasun konpromisoa hartuta zeukaten hirien kanpaina baten hasiera.

## Laudion 21 agenda lokalaren prozesua

Europako eta nazioarteko foro ezberdinek plazaratutako apostuarekin bateratsu, Eusko Jaurlaritzako Ingurugiro Sailak, Ingurugiroa Hobetzeko Kudeaketarako Sozietate Publikoaren (IHOBE) bidez eta Euskadiko Udalen Elkartearen (EUDEL) bidez bultzatu da UDALTALDE 21 proiektua, Euskadiko Autonomia Erkidegoko udalerrri ezberdinetan 21 Agenda Lokalaren diseinua eta sarrera urratsak emateko. Ondoren 2002ko abenduan UDALSAREA 21, Jasangarritasunerao Udalerrien Euskal Sarea eratu zen udaletako ekintza planak gauzatzea sustatzeko eta euskal udalerritako Tokiko Agenda 21 dinamizatzeko. Gurea da udalerrri horietako bat.

Laudiok prozesu hau hasi zuen 2000 urteko urrian, UDALTALDE 21 proiektuarekiko atxekimena sinatu zuenean eta, geroztik, 2001eko martxoan, Aalborg-eko Kartako konpromisoa sinatu zuenean. Gaur egun 2002ko abendutik hona UDALSAREA 21eko partaidea da.

Laudioko 21 Agenda Lokalak zenbait fase eta urrats nahikoa ezberdinak izan ditu:

- 1 • Lehenengo une batean, udalerrriaren barrutian edo bere eragin esparruan ingurugiro eragineko elementuei buruzko **informazioa jaso eta bildu da**.
- 2 • **Ingurugiroaren diagnostikoa** prestatu da. Dokumentu horretan identifikatzen dira erasoak, norabideak eta zein aspektutan jorratu behar den gehiago ingurugiroaren kalitatea hobetu eta udalerrriaren garapen jasangarria errazteko.
- 3 • Diagnostikoa prestatu ondoren, **Ingurugiro arloko Ekimen Plana** definitu da, eta hor zehaztu egin dira zeintzuk diren oinarritzko lerro estrategikoak eta garatu behar diren proiektu edo jarduerak udalerrri osoari orientazioa emateko kudeaketa jasangarri baterako bidean.
- 4 • **Ingurugiro arloko Ekimen Planarekin** batera diseinatu da **Jarraipen Plana** bermatu ahal izateko Ekimen Plana benetan eta errealtatean aplikatzen den ala ez, **Indikadoreen Sistemari** oinarrituta, horrek balio baitigu prozesua ebaluatzeko. Aldian aldian indikadoreak erreibisatu egiten dira, eta horren ideia nahikoa zehatza ematen digu Ekimen Planaren betetzearen gainean. Beraz, 21 Agenda Lokala jarraiko eta etenbako hobekuntza prozesua da.

“Arazo globalei erantzuna emateko gakoa da beharrezkoa dela erantzuna ematea lekuan lekuko arazoei eta halango moduz ezen udalerrri bakoitzean aurrera egin ahala eta neurrian ondorioz eta ostean planeta osoa hobetzen lagunduko dugula”.

“Garapen jasangarritzat ulertzen dugu gaur eguneko belaunaldien behar izanak asetzen dituen baina bihar-etziko belaunaldiek izango dituzten beharrak arriskuan jarri barik”.



Ekonomia

# Analisi eta planifikazioa

Ingurugiroa

Gizartea

Analisi eta planifikazioan erabili diren arlo tematikoak, hauek dira:

- |             |   |  |
|-------------|---|--|
| Ekonomia    | { | <ul style="list-style-type: none"> <li>• <b>Garapen sozioekonomikoa.</b></li> <li>• <b>Energia.</b></li> <li>• <b>Mugikortasuna eta garraioa.</b></li> </ul>   |
| Ingurugiroa | { | <ul style="list-style-type: none"> <li>• <b>Hondakinak.</b></li> <li>• <b>Natura baliabideak eta lurraldearen bioaniztasuna.</b></li> <li>• <b>Ingurugiro faktoreak: ura, zarata, lurzorua eta airearen kalitatea.</b></li> <li>• <b>Ingurugiro arriskuak.</b></li> <li>• <b>Lurraldearen antolamendua eta hiri planeamendua.</b></li> </ul> |
| Gizartea    | { | <ul style="list-style-type: none"> <li>• <b>Osasuna.</b></li> <li>• <b>Herritarren prestakuntza, sentsibilizazioa eta parte hartzea.</b></li> <li>• <b>Nazioarteko elkartasuna.</b></li> <li>• <b>Hizkuntzaren normalkuntza.</b></li> </ul>  |

Prozesu guzti honetan, Laudio Udalak bultzatu eta finkatu ditu zenbait mekanismo; horien artean **Herritarren Partaidetzako Ingurugiro Foroa**, herriko ekonomia eta gizarte eragile eta agente ezberdinen ekarpenak eta proposamenak jasotzeko, hala nola biztanle sektore ezberdinen arteko eztabaida errazteko. Horregatik, herritar aktiboak zaren aldetik gonbidatu egiten dizugu parte hartzen.

## Parte hartu!

Hau da 13 artikuludun bildurraren 1go alea.

**Bilduma egin nahi baduzu, udaletxetik aleak biltzeko karpeta eskeintzen dizugu, udaletxeko Hirigintza eta Ingurugiro arloan eskatu.**

